

KONTROL MOZIOA

AUTOBUS GELTOKIA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko martxoaren 14an, Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko otsailaren 5ean Atotxako autobus geltoki berria inauguratu zen arren, ia hiru hilabete pasatu dira, eta oraindik ere urbanizazio lanak amaitu gabe daude eta autobus geltokiaren zerbitzuak defizientzia nabariak izaten jarraitzen du. Batzordeetan, martxoko hasierako amaitze-data atzeratuko zela ikusita, epeen inguruan galdetu eta erantzun zitzaigun urbanizazio lanak amaitzea martxo amaierarako aurreikusita zegoela, baina aste honetan bertan prentsan irakurri dugu maiatza bukaerarako izango dela azkenean; alegia, geltokiaren lehen inaugurazio-saiakera baina 5 hilabete beranduago.

Geltoki-zerbitzuari dagokionez, oraindik orain eta batzordeetan gaia landu dugun arren, instalazio eta zerbitzu kalitateak gabezia nabariak izaten jarraitzen du: igogailu eta eskailera mekanikoen arazo teknikoak izaten dituzte; seinaletika oraindik ez dago behar bezala ezarria eta, oraindik orain, Lurraldebus zerbitzuak bertan gelditzeko foru agindua ez dago sinatua, Atotxako geltokiak PioXII.ekoak baino autobus-intermodalitate urriagoa izaten jarraitzen duela.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala Atotxako geltokiaren gainazaleko urbanizazio lanak lehenbailehen amaitzea.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala autobus geltokiaren zerbitzua dagokion kalitate mailan eman dadin eta horretarako egungo gabeziak konpondu ditzala, operadore eta herritarren eskaerak ere aintzat hartuta.

Donostian, 2016ko apirilaren 22a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia